

SESTAO BAI, SA-REN ETA AZKEN HIRU EKITALDIETAN GAUZATUTAKO IZAKINEN EROSKETAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKO PRENTSA OHARRA, 2013.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Sestao Bai, SAren 2013ko ekitaldiko ekonomia-finantzaren kudeaketaren eta azken hiru urteetan gauzatutako izakinen erosketaren fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute.

Txostenak kontularitza eta legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu eta Sozietatearen kudeaketa hobetzeko gomendioak egiten.

Legea betetzeari dagokionez, HKEEren iritzira, sozietateak 2013ko ekitaldian zehar jarduera ekonomiko finantzazkoa indarreko araudiari jarraiki gauzatu du, txostenean bertan jaso diren hainbat akats salbuetsita.

Honela, bada, kontratazioaren atalean HKEEk adierazi du Sozietateak zenbaitetan urratu egin duela ezargarria zaion araudia, hala nola: guztira 10,5 milioi euroan esleitutako bi kontratutan ez dira balio judizioen arabera neurgarriak diren irizpideak formula bidez neurgarriak diren haien aurretik baloratu; berebat, aparkaleku baten eraikuntza, 2 milioi euroren zenbatekoduna, 10,2 milioi euroan esleitutako bestelako obra nagusi baten aldaketa modura izapidetu da; ordea, modu independentean kontratatu behar zatekeen.

Sozietatearen urteko kontuei dagokienez, HKEEk uste du alderdi esanguratsu guztietan erakusten dutela abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena; baita, eragiketen emaitzena ere; salbuespena da izakinak gauzatzeari buruzko zalantza egoera, ekitaldi itxieran 30,5 milioi euroren saldoa duena, higiezin merkatuak bizi duen atzeraldiaren ondorioz. Nolanahi den ere, HKEEk jakinarazi du Sozietateak partaide dituen bazkideen finantza-sostengua duela eta honenbestez, urteko kontuen gaineko zeinahi interpretazio edo azterketa inguruabar hori aintzat hartuta gauzatu behar da.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, langileria eta kontratazioari dagozkion ataletan.

Azkenik, HKEEk atal luzea eskaini dio 2011tik 2013ra bitarteko ekitaldietan gauzatutako izakinen erosketak aztertzeari; bertan Sestaoko Udalarari lursailak erosteko eragiketen eta erositako lursailetan gauzatutako urbanizazio eta bestelako lanen xehetasunak jaso dira.